

**EUSKO JAURLARITZAREN AGIRITEGI NAGUSITIK EUSKADIKO ARTXIBO HISTORIKORA LEHENENGOZ DOKUMENTAZIOA EROATEAREN ONDORIOKO EKITALDIA / ACTO DE LA PRIMERA ENTREGA DE DOCUMENTACION DEL ARCHIVO DEL GOBIERNO VASCO AL ARCHIVO HISTÓRICO DE EUSKADI**

2024-06-10 Bilbao 10-06-2024

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Olatz eta Bingen sailburuok; Andoni, Polentzi, sailburu ordeok; Mikel, Fernando, zuzendari baita Irune eta Josebe gaurko honetan bereziki; egun on eta eskerrik asko zuen hitzengatik, zuen azalpenengatik bai hasieran eta baita orain denon aurrean emandako azalpenengatik.

Eusko Jaurlaritza demokrazian berriro eratu zenetik, Artxibo Nagusiak lan handia egin du gobernu honen eguneroko lanari dagokion dokumentazio guztia biltzen, sailkatzen, inbentariatzen eta gordailutzen.

Gaur, Eusko Jaurlaritzak, bere Agiritegia Euskadiko Artxibo Historikoan lagatzen du.

Etxe hau bilakatuko da dokumentazio horren aterpe, zaintzaile, babesle eta zabaltzaile.

Gaur eskerrak eman nahi dizkizuet lan horretan buru-belarri jardun duzuen profesional eta arduradun guztiei.

Euskadiko Artxibo Historikoa orain hamar urte zabaldu genuen. Eraikina kristalezkoa da, hiriaren erdian kokatua. Gardena, irekia, gertukoa.

Hala behar du memoriak: gure bizitzan txertatua, eskurakoa, emankorra.

Gaurko ekitaldia beste eraikuntza-modu baten adibide bizia da. Sistema bat ari gara eraikitzen.

Sistema bat osatzen da ekipamenduz eta arautegiz, gidalerroz eta profesional trebeez, agiritegi publikoen elkarlanaz, artxibo pribatuen lankidetzaz, eta elkarrekin elkarlanerako adostu ditugun joko-arauez.

Hori ari gara eraikitzen. Denon artean. “Auzolanean” esan izan dut askotan.

Burutu da gaur, Eusko Jaurlaritzaren barne memoria herritar guztien eskura jartzeko prozesua. Leku garden eta eskurakoan dago orain.

Gaur esan dezakegu, harrotasunez, lankidetzari esker heldu garela honaino eta elkarrekin ibiltzeko bide garrantzitsu bat zabaldu dugula.

Zaindu, babestu eta zabaldu dezagun Jaurlaritzaren memoria. Azken finean, memoriarik gabe ez gara ezer, ez pertsonak eta ez herriak.

Eskerrak beraz, benetan, ibilbide honetan bidaide izan zaituztegun guztioi.

Eskerrik asko!